



RIK gerotxoago autortzen joan nintzan. Niretzat bai dala gomuta gozoa! Zeuk ene ama laztan oñek esaten eustazun: «Teresatxo, zeure obenak agertzen ez zoakioz gero gizon bati, Jaungoikoari berberari baño». Nik sendo siñisten neban egi ori; origaitik ben-benik jañita, ia


Ducellier autofentzule jaunari *biotz biotzez maite ne-bala* esan ete biar neutsan itandu neutzun, Jaungoikoagaz beragaz itz egiten niñoyan ezkeru.

Egin biar neban gustia ikasita, autortegira sartu ta belaunikotu nintzan; baña txikia nintzan-eta, eskuak ipinten diran oltxoraño nire burua etzan eltzen, eta autofentzuleak leyatiña edegi ebanean, ezaban iñor ikusi. Orduan, zutunik egoteko esan eustan; zutundu nintzan, ba, berealaxe ta obeto ikustearfen, bere auñez-auñe jañi nintzakion. Autortuta gero, siñismen-gogo biziñaz bere onespena artu neban, Josu'ren negar-tantak une ospatsu artan nire gogoa (arima) garbitzeko jausiko zirala zeuk esan zeunstazun-eta. Berak esana gomutan zearo daukot, Andra Mariaren zalea izateko esan eustan, batez be; ta lendik biotzean neukan beraganako samurtasuna geiago berotuteko erabagia artu neban.

Azkenean neure agurtzaki txikia onesteko autofen-



tzuleari emon neutson; iñoz ez neban izan ainbeste alaitasun; bizkor eta pozik urten neban autortegitik. Gaba zan añezkero; bidargi baten ondora eldurik, gel-ditu nintzan atara sakeletik agurtzaki onetsi-baía, eta alde gustietara berari begira nenbilan. «¿Zer dagizu, Teresetxo?» — itandu eustazun. — «Agurtzaki onetsi (be-



deinkatu) bat zelan eginda dagoan begira nago». Eran-tzun lau onek poz andia emon eutzun. Luzeroan geratu nintzan artu neban eskañaz bañenduta; ordutik geyago jai nagusietan autortzea gura izan neban. Autorkuntza areik gogo bañu gustia poztasunez betetan ebela, esan neinke.

Jayak! A, itz onek zenbat gomuta dakarstaz gogo-ra! Nik bai maite nebazala! Egun bakotxeko eskutape nak zein ederto azalduten eustazuzan! Augaitik, luñeko egun areik zerukoak lakoak ziran niretzako. Batez be



Ikurton Deun deunaren ibilaldiak gogoa betetan eusten. Zelako poza Jaun ona igaroten zan bidean lorak ereitea! Jausten laga baño len, gora be gora jaurtzen nebazan, eta Eguzki Deunari ikutzen eutsela ikusiaz nire bañua egundoko pozen jarten zan.

Jayak! A, nagusiak eta ospetsuak banaka batzuk baño izan ez añen, aste bakotxak ekañen berea, nire biotzarentzat oso samuñá; *igandea*. Egun dizdiratsua benetan, Jaungoikoari eta atsedeen-aldiari emona! Jaupa edo mesa nagusira sendiko edo etxeko gustiok joaten giñan; oraindiño gomutan dot, gu gengozan tokia irakastegi edo pulpitutik urin egoan da, itzaldi orduan lekua bilatzen eleiz-erdira joan biar izaten gendun; au etzan gauza eñaza, bañia laster asten ziran bertako gustiak Teresatxori ta bere aitari jarlekuak eskintzen. Pozandia artzen eban nire osabeak biok alkañaz eltzen ikusita; *bere eguzki-izpitxoá* deitzen eustan eta nire aita agurgañia bere alaba eskutik eroyala ikustea gustiz samuñá jakola esaten eban.

Nik begiratzen eusten ala ez jaramonik be ez neban egiten, begi ta belañi biakaz apaiz edo abadeari entzun baño. Lenengoz entzun neban itzaldia Geure Jaunaren Nekaldi edo Pasiñoaz izan zan, eta gustiz asko biotz-beratu ninduan. Bost urte ta erdi nebazan nik orduan, eta geroztik beti ulertu al izan neban irakaspennen bañuko mamiña ta una».

SANTI, K. O.

